

HARTU PARTE

hezkuntza eskubidearen alde!

Haur-hezkuntzarako proposamen didaktikoa



HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-Kanpaina

www.cme-espana.org

Helburuak

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astearen helburu orokorra

Agintari politikoak eta iritzi publikoa sentsibilizatzea hezkuntzaren garrantziari eta berehala neurriak hartzeko premiar buruz, guztiok kalitatezko hezkuntza jaso ahal izan dezagun 2015erako. Beraz, aurtan, hezkuntzarako eskubidean jarriko dugu enfasia.

Proposamen didaktikoaren helburuak

- Hezkuntza pertsonen eskubide unibertsaltzat eta oinarritzotzat hartzea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak dioten legez.
- Pobreziaren aurkako ekinean oinarritzko hezkuntzak duen garrantziaz ohartzea.
- Herritar aktibo gisa, bidegabeko egoerei aurre egiteko ardura hartzea eta denok errealtate hori aldatzeko zerbaitegin dezakegula ohartzea.

Edukiak

Kontzeptualak

- Eskolara joatea eskubide bat erabiltzearekin lotzea.
- Munduko pobreziaz eta desberdintasun sozialez jabetzea.
- Hezkuntza guztientzat programaren helburuak.

Jarrerazkoak

- Eskolara joateko aukera izatea balioestea.
- Denontzako hezkuntza-eskubidea aldarrikatzea.
- Gizarteko jarduera eta ekintzetan parte hartzea.

Prozedurazkoak

- Elkarrizketa.
- Informazioa trukatea.
- Abesti bat ikastea.
- Esloganak asmatzea, pankarta, horma-irudia, giza katea, etab. egitea.

Iraupena

Lan-proposamena

haur hezkuntzako 2. zikloari dagokio (3, 4 eta 5 urte). Astebeterako zenbait saio eta une proposatzen dira, maila horri dagokion programazioaren eguneroko lanarekin lotuta. Proposatzen diren jarduera guztiak edo horietako batzuk bakarrik egin daitezke.



1. Ariketa: Batzarra: Hezkuntza munduko haur guztientzat

Eskolari, eskolan egiten eta ikasten dutenari buruz hitz egin behar da batzarrean, baita zeinen ongi pasatzen duten aztertu ere... Munduko neska-mutil guztiak eskolara joaten diren eta munduko leku guztietan eskolak dauden galdetu.

Halaber, aztertu behar da hezkuntza haurrentzako ez ezik, pertsona helduentzat ere oso garrantzitsua dela, baita hezkuntzak helduei zer abantaila eskaintzen dizkien ere. Zenbait herrialderi, horietako jendeari eta kulturari buruz hitz egin (ikasleei munduko mapa bat erakutsi, eta koloretako txintxetekin gure ikaskideen herrialdeak markatu).

Desberdintasunaren kontzeptuari buruz hitz egin: "Denok gara desberdinak, eta denok gara berdinak". Eta, berdinak bagara, eskubide berak ditugu.

Horma-irudi bat erakutsi, giza-eskubideak eta haurren eskubideak irudikaturik dituela, piktograma eta marrazki erakargarrien bidez. Nahi izanez gero, begiratu web gune hauetan:

<http://www.fac.mil.co/?idcategoria=3147>

<http://www.cinu.org.mx/ninos/html/juegos4b.htm>

<http://www.amnistiacatalunya.org/educadors/docs/index.html>

<http://www.amnistiacatalunya.org/educadors/humor/mafalda>

Hezkuntza-eskubidea azpimarratu, eta ikasleei galdetu munduko neska-mutil guztiak joaten diren eskolara eta denek dituzten irakasleak. Ondoren, egungo egoera azaldu, labur-labur, eta laguntzarik nahi duten galdetu.



2. Ariketa: Leloa

Jakinarazi behar diegu Hezkuntzaren aldeko Mundu-Kanpainan parte hartzen ari garela, mundu osoko beste neska-mutil eta heldu batzuekin batera, eta elkarrekin mundua aldatzen ari garela.


Irakasleak galdera hau egin behar du: "Zer egin behar dugu haiei laguntzeko?". Aldi berean, haurrak motibatatu eta bideratu behar ditu, nahi dugun hori adierazteko esaldi bat asmatu arte denen artean: *hezkuntza munduko haur guztientzat*. Paper jarraitu batean idatzi behar dute eslogana (ikasgela bakoitzak, berea). Korridorean ipini behar dira ikusgai esloganak, eta neska-mutilek ikasi egin behar dituzte. Eslogan horiek guztiak esaldi batean biltzen dituen pankarta egin behar dute bost urtekoek.



3. Ariketa: Eskola bat guztiontzat

Kartoi-zatiekin edo A3 tamainako kartoi meheekin eskola erraldoi bat marraztu, margotu eta, ondoren, hainbat zatitan ebaki (zati bakoitzaren atzean zenbakia jarri, dagokien ordenan). Kaxa batean zati guztiak erakutsi, eta esan oraindik egin gabe dagoen eskola baten zatiak dauzkagula (adreiluak balira bezala), baina denon artean eraikiko dugula, guk adinako zortetik ez duten neska-mutilek ikasteko eta kantatzeko eskola bat izan dezaten.

Haur bakoitzari zati bat eman, zirkuluan eserarazir eta, dagokion ordenan, zenbakiak bilatu, denon artean puzzlea osatuz joateko. Azkeneko zatia edo adreilua jarri ondoren, eskola eraikita izango dugu (zatiak zinta itsasgarriarekin elkar daitezke edo, bestela, kartoi zati handi baten gainean jarri eta kolarekin itsatsi). Marrazkiari izenburu hau jarri azpian: "Hezkuntza giza eskubidea da. Guztiontzako eskola nahi dugu". Ondoren, eskolako hallean jarriko dugu haurren eskubideei buruzko marrazkia.





4. Ariketa: Abesti bat guztiontzako

“Eskola gehio eskatzen dugu” (Sorgina Pirulina musikarekin)

Munduko umeak
Ikasi nahi dugu
Eskolara joatea
Atsegina dugu.

Herrialde batzutan
Hau ezin da izan.
Gerra eta pobrezia
Ez diete uzten.

Eskola gehio eskatzen
Lagundu nahi dugu
Kate handi batekin
Denekin elkartu.

Eskuak elkartuz
Ahotsa igoaz
Munduko umeak
Hezkuntza eskatuaz!

Eskolak denontzako, jolas eta ikasteko!!!




5. Ariketa: Horma-irudi kolektiboa

Honekin batera bidaltzen dizkizuegun ereduak jarraiki –Maestra de Infantil aldizkaritik hartuak–, horma-irudi bat egingo da paper jarraituan. Maila bakoitzak bere aukeren arabera parte hartuko du. Hala, hiru urteko hurrek koloretako etiketekin ozeanoak bete ditzakete; lau 4 urtekoek tenperaz margo ditzakete kontinenteak, eta, bostekoek, planetari eusten dioten neska-mutilak pintatu.

Gero, arraza batzuetako eta besteetako haurren aurpegitxoak hautatu behar dituzte, banan-banan, ikasleek; ondoren, pintatu eta dagokion kontinentean kokatu.


Korridorean edo ikastetxean denek bistara duten tokiren batean ipini behar da horma-irudia.





6. Ariketa: Hartu parte hezkuntzaren aldeko giza katean

Ikastetxea apaintzeko, zenbait arrazatako haurren irudiekin fitxa marrazkidunak margotu behar dituzte ikasleek, eta, ikaskideen fitxekin elkartuta, sarrera eta korridoreak apaintzeko katea eratu. Kate horien inguruan koloretako eskuak edo zuriak jar daitezke, baita haurren eskubideak idatzi ere.



Astebeteko lana biribiltzeko, **GIZA KATE** bat egingo dute haur guztiek eskolako jolastokian, eta aurretik bost urtekoek egindako pankarta eramango dute. Guztiek batera abesti hau kantatuko dute: **“Eskola gehio eskatzen dugu”**. Garrantzitsua da nabarmentzea munduan aste honetan milioika pertsona ari direla giza kateak egiten ikasteko eskubide aldarrikatzeko.

Katea egin ondoren, garrantzitsua da parte-hartzeari buruzko datuak ematea web gune honetan: <http://www.campaignforeducation.org/unete>. Argazkien eta bideoen kopia, berriz, helbide honetara bidali: info@cme-espana.org.

Egileak: Praxi Toledo (La Paz eskola publikoa. Torrellano, Alacant) eta El Espinillo haur-eta lehen-hezkuntzako ikastetxeko (Madrid) haur-hezkuntzako irakasleak.


Informazio gehiago behar baduzu, ikus www.cme-espana.org edo idatzi helbide honetara: info@cme-espana.org

Antolatzaileak:

Babesleak:




ALBOAN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegarako eta Gizartearen Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social



ETNEBETITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SALA
Gizarte Gaietako Salburuzondegia
Gaietako Lanburuzondegia, Gizartearen
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Ministerio de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo